

Euskal AEko BPGak %4,1eko urte arteko hazkundera izan zuen 2007ko aurreneko hiruhilekoan


Berriz ere Industria izan da euskal ekonomiaren motorea, atzerriko esportazioek eta ekipamenduko ondasunen ekoizpenak akuilatuta

Eustatek landutako datuen arabera, Euskal AEko ekonomiak sortutako BPGak %4,1eko hazkunde erreala izan du 2007ko lehenengo hiruhilekoan, 2006ko aldi beraren aldean. Euskal ekonomiaren datu on hau areago da azpimarratzekoa kontuan harturik erkaketa egin dugun lehengo urteko hiruhilekoaren hazkundera azken bi urteetako errekorra zela.

Urte arteko hazkunde-tasa hori Espainiako ekonomian lortu dena baino hamarren bat handiagoa da (%4,0); EB-27n lortutakoa baino bederatzi hamarren handiagoa (%3,2) eta AEBtakoa baino bi puntu handiagoa (%2,1).

2007ko lehenengo hiruhileko honetako hazkundera, 2006ko laugarren hiruhilekoaren aldean, bizkortzea dago, hiruhilekoen arteko tasa %1,5ekoa delarik, aurreko hiruhileko %0,4aren aldean. Hiruhileko arteko aldakuntza hori %1,0 izan da Espainiako ekonomian, Europako Batasuneko batez bestekoan %0,6 eta amerikar ekonomian %0,3.

BPGda m/p. Urte arteko hazkunde-tasak. (%)



Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak, Eustat. Estatuko datuak: INE EB-27ko, Euro-13 eremuko eta Estatu Batuetako datuak: EUROSTAT

Sektore eskaintzaileen aldetik, **Industria-sektorearen** urte arteko hazkundera, %4,9, batez bestekoaren gainetik dauden sektore hazkunderetako bat da, eta badu, baita ere, %2,7ko hiruhilekoen arteko tasa positiboa. Industria-bilakaera, bai urte artekoa, bai hiruhileko artekoa, ekipamenduko ondasunen joera onean oinarritzen da, eta horren lagungarri izan da urteko lehenengo hiruhileko atzerirako esportazioen aurrerapena.

Lehen sektorean, Nekazaritza eta Arrantzan, urte arteko hazkundera %5,9koa da, eta arrantzako sektoreari zor zaio hein handiagoa batean; guztira, hiruhilekoen arteko bizkortze profila %10,9an dugu.

1. taula. BPGda m/p. Eskaintza. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2005	2006	2005				2006				2007
			I	II	III	IV	I	II	III	IV	I
Nekazaritza eta arrantza	-11,5	1,3	-4,1	-10,5	-14,8	-16,7	-8,2	3,7	3,8	7,5	5,9
Industria	4,4	4,8	3,7	4,3	4,5	5,2	5,4	4,5	4,6	4,6	4,9
Eraikuntza	5,3	5,1	4,9	5,3	5,4	5,8	5,2	5,5	5,0	4,9	4,4
Zerbitzuak	3,6	3,5	3,3	3,5	3,7	3,7	3,4	3,4	3,5	3,6	3,7
Produktuen gaineko zerga garbiak	5,0	5,9	4,1	4,7	5,6	5,6	7,3	6,9	5,6	4,1	4,1
BPGda merkatuko preziotan	3,9	4,2	3,5	3,9	4,0	4,3	4,4	4,2	4,2	4,1	4,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat.

Eraikuntzak izan ditu hazkunde tasarik handienak aurreko hiruhilekoetan, baina moteltzear dirudi. Urte arteko hazkundera, %4,4, handia da oraindik, baina lehenengo hiruhilekokoaren aldean, %4,9, txikixeagoa. Hiruhilekoen arteko tasa, zeina aurrekoan %1,9koa baitzen, %0,4ra jaisten da.

Zerbitzuen Sektorean hamarren bateko hazkundera dugu lehenengo hiruhilekoaren aldean, tasa %3,7koa delarik. Bestalde, **Merkatuko Zerbitzuetan** urte arteko %3,9ko hazkundera dugu, 2006ko laugarren hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago; halere, hiruhilekoen arteko profila %1,2tik %0,5era pasatzen da. **Ez-Merkatuko Zerbitzuetan** urte arteko goranzko bilakaera dugu, %2,8koa; baina hiruhilekoen arteko tasetan beheranzkoa, lehenengoan %1,2 eta oraingoan %0,3.

Eskariaren aldetik BPGaren urte hazkundera berriz ere, Barne-eskarian bermatzen da, zeinak eduki baitu %4,5eko tasa, lehenengo hiruhilekoaren berdintsu. Bestalde, Inportazioak %7an handitu dira, eta Esportazioak %6,5ean.

Ettxeko Azken Kontsumoari dagokion Gastuak, kontsumo pribatuak, %3,9 egin du aurrera lehenengo hiruhileko honetan, lehenengo hiruhileko urte arteko tasaren berdina. Aitzitik, hiruhilekoak haien artean alderatuz gero, %2,5eko bizkortzea bistaratzen da, lehenengo hiruhilekoan %0,6koa zelarik.

Administrazioen Azken Kontsumoko Gastua, kontsumo publikoak, lehenengo hiruhileko goranzko joerari eutsi dio, 2007ko lehenengo hiruhileko honetan urte artekoa %3ra iristen delarik.

Barne-eskariaren osagarririk aktiboena, aurreko hiruhilekoetan bezalaxe, **Kapital Eraketa Gordina** izan da; inbertsioak, alegia. Hiruhilekoen arteko hazkundera %6,6 izan da; azken zortzi

hiruhilekoen urte arteko tasak gainditzen ditu. Hiruhilekoen arteko hazkundera azpimarragarria da baita ere, %1,8.

2. taula. BPGda m/p. Eskaria. Bolumen-indize kateatuak. Urte arteko hazkunde-tasak. Euskal AE

	2005	2006	2005				2006				2007
			I	II	III	IV	I	II	III	IV	I
Etzeguneen azken kontosumoko gastua	4,1	4,1	3,7	4,2	4,2	4,4	4,2	4,1	4,1	3,9	3,9
Herri-administrazioen azken kontosumoko gastua	2,7	2,9	3,1	3,2	2,1	2,5	2,8	3,0	2,7	2,9	3,0
Kapital-eraketa gordina	6,3	6,3	6,1	6,3	6,2	6,6	6,4	6,2	6,2	6,3	6,6
Barne-eskaria	4,5	4,6	4,2	4,6	4,4	4,7	4,7	4,6	4,5	4,5	4,5
Guztizko esportazioak	5,1	7,4	4,5	4,3	5,3	6,4	7,9	5,4	8,2	8,3	6,5
Guztizko inportazioak	6,0	7,9	5,5	5,5	5,9	7,1	8,2	6,0	8,7	8,8	7,0
BPGda merkatuko preziotan	3,9	4,2	3,5	3,9	4,0	4,3	4,4	4,2	4,2	4,1	4,1

Urtaroen eta egutegiaren eraginetatik zuzendutako datuak.

Iturria: Hiruhilekoko Kontu Ekonomikoak. Eustat.

Euskal A. E.ko **pertsonal enpleguak** urte arteko %2,5eko hazkundera izan du 2006ko lehenengo hiruhilekoaren aldean, eta %0,5eko hiruhilekoen arteko tasa 2006ko azken hiruhilekoaren aldean. Azken urtean euskal ekonomiak 24.000 enplegu garbi baino gehiago sortu ditu.

Hiru Lurralde Historikoen BPGaren urte arteko bilakaerak lurraldeen arteko zenbait ezberdintasun erakusten ditu, 2007ko lehenengo hiruhileko honetan. Hazkunde tasarik handiena Gipuzkoan izan da (%4,5); Bizkaia tartean kokatzen da (%4,0), Euskal A. E-ko batez bestekotik hamarren batera; Araba (%3,8), batez bestekoaren azpitik hiru hamarrenera.

Lurraldekako pertsonal enpleguari begiratuz gero, joerarik onena Bizkaian dugu (%+2,6), ondoren Gipuzkoa (%+2,5) eta Araba (%+2,2).

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elektronik.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Jose M^a Agirre

Tlf:+34-945-01 75 80 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp